

## **Atzo iritsi ziren Formigal-en izandako MUko ikasleak etxera, bikain ibili ondoren**

2013/02/07

Atzo gauean iritsi ziren Formigal-en izandako ikasleak etxera. Astelehen goizaldean irten eta 3 egunetan zehar eski edo snow-az gozatu ondoren, pozik eta lesiorik gabe bueltatu dira.

Elurraz gozatzeko irteera paregabea izan da, elur nahikoa izateaz gain, jende gutxi zebilelako estazioan (aste barrua izatearen abantaila).

Astelehen eta asteartean eguraldia lagun izan zuten, baina asteazkenean elurra sendo bota zuen eta planifikatutakoa baino lehenago irten behar izan genuen bueltan, errepidean arazorik ez izateko.

MUko Kirol Zerbitzuak antolatuko duen hurrengo eski irteera, Sant Lary-ra izango da Martxoaren 8-10 bitartean. Animatu!!

